

LAB SINDIKATUAREN KOMUNIKATUA **ITURBIDE-KO ZAHARREN EGOITZAREN GAINEAN.**

Azken egun eta asteotan Iturbideko egoitzaren inguruan gertaturikoen inguruan LABek zera adierazi nahi du:

1.LAB sindikatua ez dago ados Aita Meni-ko zuzendaritzak azkenaldion enpresa kudeatzeko duen moduarekin, proposatu izan dituen neurriek aplikatu beharreko hitzarmenaren ez betetzea baitakarte eta, ondorioz langileen eskubideetan atzerapausuak eta zerbitzuaren kaxkartzea. Zuzendaritzak malgutasun laborala handiagoa nahi du eta horrek lana eta bizitza uztartzeko ezintasuna suposatzen du langileentzat, beste arazo batzuen artean. Halaber, egoitzako langileek, zerbitzu publiko bat egikaritzen duten heinean, udalak berak duen erantzunkizuna azpimarratu nahi dugu.

2.LABek ez du ontzat ematen, Enpresa Batzordea ordezkatzeko helburu duen organu paralelorik. Zilegatasuna duen ordezkapen organu bakarra Enpresa Batzordea da, zeinetako kideak bozka bidez hautatuak izan baitiren.

3. LABek, Iturbide-ko egoitzari dagokionean duen asmo eta helburu bakarra, langileen lan baldintzetan eman litezken atzerapausuak eragozteko eta ahal den heinean lan baldintzetan hobekuntzak lortzea da. Uste dugu Enpresa Batzordea ez dela gai izan sindikatu eta langile guztiak antolatuko lituzkeen estrategia eraginkor bat artikulatzeko. Enpresa Batzordean, ordezkariak daukagun sindikatu guztiok (5 delegatutik 1 da LABekoa) eduki beharko genuke lekua Enpresa Batzordean. Jokamolde okerrak zuzendu egin beharko lirarteke. Ezin da, LABekin egin nahi izan duten bezala, informazioa eta erabakiak hartzeko ahalmenetik inor baztertu, Enpresa Batzordea langile guztiak ordezkatu behar duen organu kolegiatu eta bateratua baita.

4. LAB sindikaturentzat, egoilarrek jaso behar duten zerbitzuak berebiziko garrantzia dauka baina horrek ez du langileen lan baldintzetan atzerapausurik suposatu behar. Are gehiago, langileen lan baldintzetan atzerapausuak ematen direnean, zerbitzua bera ere kaxkartu egiten da beti. Arrasateko udalak urteko kontu ekonomikoak superabitarekin itxi izan dituen heinean, guztiz ulergaitza egiten zaigu Iturbide-ko langileen lan baldintzak hobetzeko ahaleginik ez egitea eta are ulergaitzakoa eguneroko lanean langileek duten baliabide eskasia. Gai hauei berehala heldu beharko litzaiokeela uste dugu.

5. Orain arte behintzat, ez enpresarentzat, ezta udalarentzat, langileen lan baldintzen hobekuntza ez da lehentasuna izan duen gai bat izan. Langileok ez baldin bagara antolatzen ezinezkoa izango da lan baldintzetan tajuzko hobekuntzak lortzea. LABek, langileen kolektiboa boteretzeko helburuarekin, bere esku dauden baliabideak ipintzeko konpromisua du.

6. Udalak Iturbide egoitza “zuzentzeko” modua desegokia dela uste dugu. Langileok Aita Meni-ko langileak gara, ez udal langileak. Jaso beharko genituzken agindu bakarrak enpresako zuzendaritzarenak dira eta ez udalarenak. Funtzionatzeko moduan asko dago hobeteko. Hori dela eta, udala, Aita Meni-ko zuzendaritza eta Enpresa Batzordean ordezkariak dugun sindikatuak mahai baten inguruan jarri beharko ginatekeela uste dugu.

7. LABek ez du uste Enpresa Batzordeko kideak errebotatzeko gaur egun mahai gainean ditugun arazoak konpontzeko biderik eraginkorrena denik.

8. LAB sindikatutik mahai gainean daukagun arazoak konpontze aldera, eragile guztiarekin elkarriketa bat abiatatzeko gure prestutasun osoa duela adierazi nahi du.

